

## Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



1984

George Orwell

TXALAPARTA

436 orrialde

18,05 euro

## Orwellen lanik entzutetsuena

1949an eman zuen argitara George Orwell ezizenarekin ospetsu egin zen idazleak. *Nineteen Eighty-Four* nobela, egile ezkertiarrek gizateriarentzat aurreikusten zuen etorkizun tamalgarriaz diharduen lana da. Urrun samar zegoen 1984. urtea. Handik hilabete batzuetara tuberkulosiak jota hil zen Eric Arthur Blairek –hori baitzen Orwellen benetako izena– suma ezin zitzakeen aldaketa batzuk gertatu ziren geroztik, Sobietar Batasunaren porrota esate baterako. Bere aurreikuspen guztiak ez dira bere horretan bete jakina, baina intuizio ikaragarria izan zuela ezin inork ukatu. Gu-

tia kontrolpean izan nahi duen Anaia Nagusiaren indarra begi bistakoa da gaur egun. Harengandik salba gaitzaketen proletarioen indarra, berriz... ikusteke dago oraindik. |



García Larrache, un republicano navarro euskaldún

Javier García-Larrache

PAMIELA


390 orrialde/ 22,50 euro

## Rufino García Larrache nafar errepublikanoaren biografia

Lau urte zituen Javier García-Larrachek sendi osoarekin batera atzerrirako bidea hartu behar izan zuenean. Orain, harro aurkezten du, Pamiela argitaletxearen bidez, bere aitaren biografia *García Larrache, un republicano navarro euskaldún (Pamplona, 1889 - Bayona, 1956)* izenburuko liburuan. Rufino García Larrache 1931-1933 garaian Nafarroa errepublikar bihurtzeko borrokatu zuen gizona izan zen. 1932an lan egin zuen Iruñeko Batzarrak Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lotuko zituen Estatutu bat sortzea onar zezan. Ez zuen ez bata eta ez bestea lortu, eskuina nagusitu zelako. Franco, Mola eta beste kolpistak garaile gertatu zirenean, atzerrira alde egin behar izan zuen Rufinok, baina handik ere ahalegindu zen Errepublikari laguntzen. |

## Aitor Aranaren misterio nobela

Aitor Aranak gazteentzat idatzitako *Lurpeko herrixka* misteriozko nobelak hemezortzi urteko bikotea du protagonista. Neska, batik bat. Izan ere, mutilari anaia nagusiak astebururako autoa utzi diola aprobetxatuz Pirinio aldera doazenean, udazkeneko ekaitz beldurgarri bat sartuko zaie batbatean, eta istripu latza izango dute. Mutila hil egingo da. Laguntza eskatu nahi luke neskak, baina gertueneko herria ere urrun dago eta ekaitzak bere gogorrean jarraitzen duenez, ikusi berri duten baselizan itxarotea erabakiko du. Bertan pasatzen duen gauean gauza harrigarriak ikusiko –edo amestuko?– ditu neskak Eta hurrengo goizean herritarren laguntza lortzen duenean, mutilaren arrastorik ez dute aurkituko. Hirira itzultzean berriz, amak esango dio mutilak deitu berri diola. |



Lurpeko herrixka

Aitor Arana

IBAIZABAL

136 orrialde

9,80 euro

## Iaz irabazle izan ziren lanak

Hemeretzi urte daramatza Iruñeko Udala Haur Literatur Lehiaketa antolatzen. Duela gutxi plaza-ratu duen izen bereko liburuan 2006an irabazle suertatu ziren ipuin eta komikiak daude bildurik. Egileak –Maitane Munarriz, Julen Villarreal, Jone Alzueta, Jon Goikoetxea, Zuriñe Muneta, Leyre Julian, Nerea Nuin, Aitziber González, Karmele Saenz, Ane Lore Ugarte, Irune Berrando eta Amaia Urabayen, ipuinetan; Lucía Nieto, Irati Martínez, Eneko Tirapu eta Iñaki de la Iglesia, komikietan– Lehen Hezkuntzako aurreneko, bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailako neska-mutikokak dira. Haatik, badira Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako ikasleek sortutako bi idazlan ere: Amaia Goñiren *Maitasunak ilearen kolorea aldatzen du* eta Irati Majueloren *Ametsen bidaia*. |



Haur Literatur Lehiaketa. Ipuin eta komikia. 2006

Batzuen artean

IRUÑEKO UDALA

64 orrialde



## Rutas fáciles por los Pirineos

Batzuen artean

SUA

146 orrialde

10 euro

## Hurrekin Pirinioetan egiteko ibilbideak

Adin guztietako hurrek Pirinioak ezagutzeko aukera ematen duten ibilbidez osaturik dago Sua argitaletxeak kaleratu duen *Rutas fáciles por los Pirineos. Propuestas para niños y niñas de todas las edades* izeneko gida. Hirurogeita hiru ibilbide dira, denera, eta Pirinioak ondo ezagutzen dituzten mendizaleek diseinatu dituzte: Jon Benitok, Joan Portellek, Mikel Tellagorrik eta Eduardo Viñualesek. Ibilbide batzuk oso motzak dira; beste batzuk, luzeagoak; eta artean badira mendi-zaletasuna serio hartu nahi duten neska-mutikoentzat propio pentsatutako "maila handiko" irteerak ere. Jakina, ibilbideak baldintza onenatan egiteko gomendioak ere ez dira falta. |

## Eguraldiaren arabera Krokok egitea maite duena

Ibaizabalen eskutik kaleratu den Krokoren bilduma osoa bezala *Txipli-txapla! Krokota eguraldia* liburua ere etxeko txikienei zuzendutako kontakizuna da, orri lodikoa eta ezuste atseginez betea. Egun eguzkitsuetan Krokok maite du triki-traka trizikloan ibiltzea. Egun haizetsuetan, ordea, nahiago du kometa dantzan jartzea. Egun sargoritsuetan, berriz, han doa Krokota itsasoan edo errekan murgiltzera.


Egun euritsuetan maite du putzuetan saltoka ibiltzea. Eta egun elurtsuetan, elur malutak jaurtitzera. |

Txipli-txapla!

Jo Lodge

IBAIZABAL

20 orrialde/ 6,80 euro



JEXUXMARI ZALAKAIN

## «Apostolua izan zen Balentxi, horretan ez dago dudarik»

Zer suposatu du zuretzat liburu honek?

*Balentxi* lagun adiskide maiteari buruz idaztea, beste edozeren gainetik, atsegin gozoa izan da. Baina betebeharrak ere bai. Izan ere, *Balentxi*ren figura hurrengo belaunaldietan gogoratzea merezi duen horietakoa da, eta haren memoria idatziz uztea, nirea ez ezik, beste askoren zeregina ere izan da. Ze, liburu hau ez da nirea bakarrik. *Balentxi* ezagutu eta zerbait idazteko aukera eta gogoia izan dutenez gain, harekin zerikusia izan duten guztiena ere bada.

Zer diozu jarritako tituluz?

Apostolua izan zen Jose Manuel Balentziaga Añon *Balentxi*, horretan ez dago dudarik, Jesus Nazaretekoak bere ikasle gisa aukeratutakoan espiritu berberaz jokatu baitzuen beti, libre eta ausart. Hamabi lagun hartu zituen berekin Palestinako profetak; bat ustel atera zitzaion, Judas Iskariote, saldu zuena. Haren ordean Bernabe aukeratu zuten lehen kristauek, Paulo gero. Hamairu apostolu osotara. Jorge Oteizak Arantzazuko komentuko ateburuan hamalau apostolu ezarri zituen Pietatearen inguruan. Zein ote hamalagarrena? Liburu honen egileen arabera, zalantzarik gabe hamalagarren apostolua *Balentxi* da.

Arrazoiak?

Euskal apaiz matxinoa izan zelako: behartsuen hurkoa, preso guztien anaia, Eliza ofizialaren zigorra, drogak jotakoan defendatzailea, zapaltzaileen etsaia, adinduen itsumutila, etorkinen babeslea... Euskararen maitalea ere izan zen. *Balentxi* beti ibili zen euskararekin lehian, ikasi nahirik setati.



## Jose Manuel Balentziaga Balentxiaren nortasunaz

Behartsuenen, zokoratuenean eta zapalduenean alde borrokan tinko iraun zuen apaiz

katolikoa genuen Jose Manuel Balentziaga Añon *Balentxi* (1935-2006). Erromako Eliza horren buruetako askok —baita gertuen ditugunek ere— segur aski nahiago izango zuten bere apaizgoa bertan behera utzi izan balu. Zen bezala zelako makina bat debeku ezarri zizkieten, behintzat. Baina *Balentxi*z, bizitzako beste arlo askotan bezala, zailtasunak zailtasun, horretan ere ez zuen amore eman. Horretaz, eta haren bizitzako beste esparru askotaz mintzo da Txalaparta argitaletxea eta *Herria 2000 Elizaren* artean plazaratutako *Balentxi. Hamalagarren apostolua* izenburuko liburua. Jexuxmari Zalakainek prestatu du liburu horren mamia, baina *Balentxi*ren lagun askok —eta etsai batzuk ere bai— parte hartu

egileari galdezka



Balentxi

Jexuxmari Zalakain

TXALAPARTA /HERRIA2000 ELIZA

216 orrialde

16 euro

dute lanean. Lehenik eta behin, Jexux Arrizabalagak, Sabino Ormazabalak, Martin Ansok eta Txus Congilek, sustatzaile gisa. Eta beste frankok apaiz guztiz berezi haren bizitzako urratsen datuak, pasadizioak eta era guztietako gogoetak azalduz. Liburuak badu *Balentxi* berari hitza ematen dion tarterik ere: *Herria 2000 Elizan*, *Egin* eta *Gara* egunkarietan eta bestetan plazaratu zituen lanena. ■